

K...eta! Kitto!

2016-1-29

959 zkia.



Ludoteka
Jacintolabe

Jolasten ikasi



EUKi
servicios inmobiliarios

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA

KUDEAKETA

ADMINISTRAZIOA

30 urtetik gorako esperientzia

943 200 358

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



JENDEA HARTZEKO
(aurrez-aurre eta telefonoz)
09:00-14:00 / 15:30-19:30

V. IKASENPRESA Azoka

Lanbide Heziketako ikasleek
sortutako era guztietako
produktuak eta zerbitzuak!



Otsailaren
2an
(10:30-13:30)
Untzaga
Plazan

Zer da IKASENPRESA?
TKNIKAk koordinatuta, Lanbide Heziketako ikasleei
zuzenduriko enpresen simulazioan oinarritutako
Hezkuntza Programa, kultura ekintzailea sustatuz.



#feriaikasempresa
www.ekingune.tknika.eus



Kolaboratzailea



¡Participa con nosotros!
Gurekin parte har ezazu!

etakitto.eus



Kultur-agenda
herriko
kultur eskaintza

- Herriko aktualitatea jarraitzeko
- Argazki-bildumak ikusteko
- Euskara elkarteko proiektu guztiei buruzko informazio eguneratua etengabe jasotzeko
- Zorion-agurrak ■ Zinea
- Iragarki laburrak ■ Berbetan
- Farmaziak ■ Eguradia



etakitto.eus



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TFNOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ana Aizpuru

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Aparkalekua Eibarren

Aparkatzea Eibarko edozein auzotan oso zaila dela badakigu; baina, dirudienez, Eibarko udalak ez du horrela pentsatzen. Eskertzekoa da multa ipini aurretiko ohar hori aurkitu izana gure autoetako kristaletan baina, tamalez, nota horrek ez du gure herriko auzoetan aparkatzeko dagoen arazoa konpontzen. Eskertzekoa da ere, 200€-tako isuna ipini beharrean, 50€-tako isunak izatea gure parabisetan, baina jakin beharko litzateke hori ez dela irtenbide egokia.

Uste dugu jakinezkoa dela espaloi gainean aparkatzea autoen jabeentzat ez dela oso gustokoa, horrek ekar ditzakeen arazo mekanikoengatik. Baina jakin badakigu Eibarko auzo askotan, tamalez, ez dagoela beste aukerarik gaueko 20:00etatik goizeko 08:00etara. Asko eskertuko genuke, San Kris-

tobal auzoko biztanleek behintzat, ordu horien artean benetan oztoporik sortzen ez duten autoak isunik gabe lagatzea, gatazkatsuak diren "aparkaleku" horien kopurua 30 ingurukoa denez auzo inguru horretan.

Udaleko bulegoetan irtenbide baten bila dabilzan bitartean, lerro hauek erabili nahi dituzten arazo hori duten Eibarko biztanle guztiak Udaleko Pegorara hurbiltzeko eta kexa iradokizuna betetzeko eskatzeko, ea modu horretan gure politikariek arazo hori konpontzeko konpromisoa hartzen duten eta gure diru-zorroa bakean lagatzen duten behingoz.

Ea denon artean herri honetan zentzua finkatzea lortzen dugun. Eskerrik asko.

Aitor Ogiza

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KUKURRUKU EZTUL.- Eztul kukurrukua, tosterina. "Titikua zan gure bigarrena, kukurruku eztul gogorak hartu ebanian".

KUKURRUKUA JO.- Desafio egin. "Batak kukurrukua jo dau, bestiak karraskadia".

astean esanak

"Bertsolaritzaren barnean bi azpigerorekin egiten dugu topo: lege zaharreko bertsolaritza eta bertsolaritza berria. Atxagarentzat, bertsolari tradizionalak hizketari forma berezi bat emateko gaitasuna zeukaten pertsonak badira, bertsolari berriak dira ahoz esateko testuak osatzeko gaitasuna dutenak. Ondorioz, bi txapelketa, bakoitza bere eredu eta arauekin, planteatzeko ideiak seduzitzen nau. Sektore zabal batek barre egingo dit. Baina zentzurik ez duelako ote?"

(RUFINO IRAOLA, IDAZLEA)

"Dinosaurook idazten dugu hemen, dinosauroen agindupean, gure bezero bakarrak diren dinosauroentzat. Egunkariak, lana bukatu ondoko txikiteotxo, zinemara eta kontzertuetara joatea edo polizia gogaitzea belaunaldi berriek zokoratu eta hiltzen utziko dituzten gure ohituren artean daude. Areto txikiren batean atzerriko talde ezezagunen baten rock kontzertuek burusailen batzarrak dirudite, joko kanpo geratutako gaztetxe jurasiko askok bezala. Eta gazte nazkante horiek? Logelako epela uztera behartzen badituzte, lagunarteko lokalaren babesera doaz azkar"

(DANEL AGIRRE, BERRIAKO ZUTABEGILEA)

"Transparentzia eskatzen dugu, baina diru-laguntza bat jasotzen baduzu eta onuradunen zerrenda internet-en kaleratuko dela esaten badizute, horrek ez dizu grazia askorik egiten. Besteena bikain, baina gure datuak argitaratzea... hori beste kontu bat da. Bestalde, berankorren zerrendak kaleratzean ez dugu heziketa helbururik betetzen. Milioi bat euro zor dituen baten izena hor agertzeak iturgin batek beltzean ez kobratzea ekarriko du? Txarragoa oraindik: zorrak dituen enpresa bati, eta horiek kitatzen ahalegintzen denari, zertan laguntzen dio hor azaltzeak? Edo enpresa ixtera ez du eramango?"

(IÑAKI PARIENTE, DATU BABESERAKO EUSKAL AGENTZIA)



UNAI ARTETXE

Bidaia on!

Gu ere izan ginen bidaiari. Guk ere amestu genuen etorkizun hobea gabe. Guk ere maletan bi arropa zahar sartu genituen, eta gehien maite genuena atzean utziz norabide jakinik gabeko zeharkaldiari ekin genion, atzera begiratu gabe, negar malkoak itsasoan isuriz. Hastapenean ilusioak eta beldurrak bat egiten dute. Segunduak aurrera doaz. Tiki-taka. Minutuak. Tiki-taka. Orduak. Tiki-taka. Denborak aurrera egin ahala bizitza berria hurbilago ikusten dugu. Baita heriotza ere. Erlojuaren tiki-takarekin dantzan hasi dira olatuak. Ikara. Umeen negarrak. Helduen isiltasuna. Zenbat galdera. Zenbat hutsune. Ekaitzaren ostean, barealdia. Ikarak logureari paso eman dio. Hotzak nekeari. Gaueko iluntasunik beltzenean haizearen hotsak entzuten dira. Besterik ez. Asko faltako ote da? Etsipena. Blai eginda ireki ditugu begiak. Hala nola uretatik atera gaituzte. Eta non dira besteak? Gu ere izango gara bidaiari. Agian gaur ez, baina seguru asko bai bihar, etzi, eta etzidamu, atzo eta herenegun bidaiari izan ginen bezala. Askotan bidaiatzera behartzen gaituztelako. Gehienetan beste irtenbiderik ez dagoelako. Guk ere atzera begiratu gabe bizitza hobea baten bila jo beharko dugu. Eta guk ere zeharkaldi horretan gaudela galdera hoiak guztiak erantzun beharko ditugu, ikara, etsipena, hotza, nekea eta logurea barru barruan ditugula. Guri, ordea, uretatik ateratzen gaituztenean ez dizkigute mugak parez pare itxiko. Gu europarrak baikara. Gu lehen mundua baikara. Ala ez?

Merkadillua Txaltxa Zelaira

Aste honetako merkadillua izan da Errebalen egingo daben azkena, oin arte azokako postuak ipintzeko erabillitako aparkalekuan biharrak hasiko dittue eta. Hori dala eta, datorren astetik aurrera, astero eguaztenetan egitten daben azokia Txaltxa Zelairan, Juan Gisasola kaliaren aldameneko parkian ipiñiko dabe.



enpresak aurkeztu dittue Amañan jolastoki 2 instalatu eta hornitzeko eskintza. Jolastokixetako bat pasialeku barrizan, T. Anituako 4. zenbakixaren parian egingo dabe eta bestia Torrekuako anbulatorixo parian. Lizitaziño-aurrekontua 150.000 eurokoa izan zan eta lanak zortzi asteko epian amaituta egon biharko dira.

**Gizarte zerbitzuak hobetzeko siñadurak**

Siñadura-bilketia egingo dabe LAB-ekuk datorren eguaztenian, 11:00etatik 12:30era Untzagan, "Zaintza zaindu" goiburuko kanpaiñaren harira. Diñuenez, "gizarte-laguntasunaren premiña edozeiñi eta edozein momentutan agertu leixiko eta administraziñuak eskubide hori bermatu bihar dabela pentsatzen dogu. Baiña gizarte zerbitzuak gaur egunian bizi daben egoeria oso kezka-garria da". Horregaittik, zerbitzuen kalidadia hobetzeko zein bihargin gehixago kontratatzeke eskatzeko ekin deste siñadurak biltzari.

Mus-Txapelketarako kanporaketia

Euskal Herriko VIII. Mus-Txapelketako kanporaketia jokatuko dabe domekan Klub Deportibuan, 16:00etatik aurrera. Bikote bakoitxak 20 euro pagau biharko dittu eta parte-hartzaillak aurretik zein egunian bertan eukiko dabe izena emoteko aukeria, Klub Deportibuaren tabernan. Parte hartzera animatzen diran bikote guztiak ardo botilla bana jasoko dabe opari moduan eta, horrez gain, lehelengo sailkatzia lortzen daben bikotiak lau lagunendako bazkarixa irabaziko dau; bigarrenak, barriz, lagun birendako afarixa jasoko dau; eta finalera aillegau ezker, sari edarrak irabazteko aukeria izango dabe. Antolatzaillak diñuenez, "gero eta gazte gehixago dabiz mus-arekin zaletzen eta benetan giro aparta egoten da". Horregaittik, antolatzaillak eibartarrak parte hartzera animatu nahi dittue. Informaziño gehixago nahi dabenak, Deporrera jua leike edo, bestela, www.ehmus.eus helbidian begiratu.



Maier patronatuan sartu da.

IK4-Teknikerrek %6 igo dittu bere sarrerak I+G+b-n

IK4-Tekniker zentro teknologikuak ehuneko kopuru horretan haunditu dittu bere sarrerak iazko ejerzituarekin konparatuta, "batez be enpresekin kontratatutako proiektuak %5 igo diralako". 2015eko azken ekitaldixan enpresak dittuan 272 lanpostuuri heldu detse eta 2016rako "langille gehixago hartzeko asmua" daka. Horrez gain, Maier automozioño eta elektrodomestikuen fabrikatzaillia bere patronatuan sartu dala jakiñarazi zeban IK4-Teknikerrek.

Turismo azokan sarixa

Aurreko astian Madrillen egindako Fitur turismo azokan sarixa jaso eban Beatriz Escobar Debegesako lehiakortasun turistikorako teknikuak. Zihetzago esateko, "2015eko SICTED kudeatzaille onena" kategorixan bigarren finalista geratu zan Escobar. SICTED Turismo Kalidadiaren Sistema Integralak helmuga turistikoen kalidadia billatzen dau eta Debabarrena eskualdiak 2010. urtian egin eban bat SICTED programiarekin, Basquetourren eskutik, eta gaur egun eskualdeko 37 enpresa turistikok dake Kalidate Turistikuaren Konpromisua ziurtagirixa.



autuan



ZINE-FORUMA

Gaur 19:00etan "Alma Salvaje" pelikularen inguruko zineforuma egingo dabe Portalean (areto nagusian), Pagatxa eta Defibel alkartien eskutik. Dinamizatzaillia Izaskun Rodriguez Elkoro izango da eta sarrera duan eta libria izango da.

SAN BLAS

Datorren asteko eguaztenian San Blas ospatuko dogu gurian eta, ohitturiari jarraituta, eibartar askok opillak elizara, bedeinkatzera eruango dittu. Azittaingo elizan horretarako meza berezixa 11:00etan egingo dabe; ordu berian izango da San Andres elizako mezia eta Karmelitetan, San Agustinen, San Jose Obreron (Urkin) eta El Salvadorren (Amañan) be sanblasak bedeinkatzeko meza berezixak ospatuko dittue.



Ainara LeGardon zuzenian

Biharrin sormen espazio barrixa Ubitxan zabaldu eta urtarrilleko programaziñuari ekin detsenetik geratu barik dabiz. Aurreko asteburuan egin zittuen jarduera guztietan jendetza batuzan eta asteburu honetan be egongo da zer egin, gaur arratsalderako kontzertua antolatu dabe-eta: 19:30etik aurrera Ainara LeGardon abeslari bilbotarrak zuzenian jardungo dau kantuan, gitarra lagunduta.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gazteleratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com



Funeraria·Ehortzetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO **funeuskadi**

Sindikalgintzari buruzko hausnarketia

Debaldeako LABeko ordezkariak eskualde maillako taillarra egin eben martitzenian Portalean, "LAB birpentsatzen" izeneko prozesuaren baitan. Azaldu dabenez, "sindikalgintza indartsuago eta eraginkorragua egiteko asmuarekin abiatutako eztabaida prozesuari ekin detsagu eta sindikatuko kide guztiak horretan burubelari gabiltza". Prozesua 2017xan egingo dan Kongresura arte luzatuko da eta aste honetan egindako lan saiuan 70 delegatu bildu ziran. Eztabaidaren kokapena egin eta lau taldetan banatu ondoren, sindikatuak berak zein sindikalgintzak dittuen indargune eta ahulguni en gainian berbetan jardun eben, etorkizuneko LAB sindikatua zelakua izan biharko litzakeen irudikatzen asmuarekin.



2017. urtian kongresua egin arte egongo da martxan hausnarketa prozesua.



Aurreko zapatuan aurkeztu eben "Salvese quien pueda" dantza eta musika ikuskizun barrixa Lagun Taldekuak eta, betiko moduan, txalo artian agurtu ziran artistak. Hori bai, astebeteko atse-denaldixa eta gero, bixar atzera be taula gainera igotzeko desiatzen dagoz, ikuskizunaren bigarren emanaldixa eskintzeko. Aurreko astian bezala, bixarko ikuskizuna 17:30xetan hasiko da eta sarrerak euro bi balixo dau. **Argazki-bilduma: etakitto.eus/mediateka**

Santa Ageda batzen

Sostoa abesbatzako kidiak urteroko ohittuari eutsiko detse aurten be eta oinguan Eguen Zuri egunarekin bat egingo dabean Santa Ageda bezperan kantatzera urtengo dira. Santa Ageda Batzen kalejira 19:00etan abiatuko da Egogain kaletik, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak lagunduta. Herriko kalietan Santa Ageda koplak eta beste batzuk kantatzen ibilli eta gero, Urkizun amaittuko dabe santaeskia, gabeko 22:00ak al-dian. Eguen arratsalde illuntzian beste batzuk be urtengo dira kalejiran: Eibarko Kantuzaleak abesbatzak 19:30xetan hasiko dau santaeskia eta Eibarko Sarekuak be koplak kantatzeko entseguak egin eta gero, kalerik kale abestuko dittue.



Errioxako ardauak Untzagan

Athletic eta Eibar foball taldiak domekan jokatu eben partiduak ez zetsan mesederik egin Untzagan lehelengoz egin zan Ardaun Egunari, eibartar mordua herritik kanpora jua ziran eta. Halanda be, eguardi partian Untzagan ibilli ziranak edarto aprobe-txau eben Mondragon Unibersidadeko Tewo alkartiaren ekime-nez antolatutako ekitaldixa, Arabar Errioxako ardau diferentia-k probatzeko eta, bide batez, ardau hórretxen ezaugarriak hobeto ezagutzeko.

Koko dantzak

Bixar ailelegauko jakuz Aratostiak Eibarrera, Kezka dantza taldekuen ekimenez egingo daben koko-eske eta koko-dantzekin. Lehen agerraldixa, betiko moduan, Merkatu Plazan egingo dabe goizian goiz, 08:30xetan, holan plazara jundako basarritarrak ikusi deixen. Jarraixan, 09:00ak aldian ekingo detse basarrixetako ibilbidiari. Euren berbetan *"geuriak ziklo olinpikuak dira, lau urterik behin emoten detsagu bueltia Eibarko basarri-auzueri. 2008xan koko-dantzak eta koko-eskia abiatu genduazenetik itzuli bi osatu dittugunez, aurten atzera be hasiera puntuan gagoz, hirugarren itzulixari ekiteko prest"*. Arratsaldeko 16:00ak bittartian Arrate Balle eta Gorosta auzuetako basarrixetan jardungo dabe koko-marruen konparsakuak. Eta basarrixetako bisitak amaittu eta jarraixan, kalia segiduko dabe jaixarekin: anbulatorixoko parketik abiatuta, 19:00etatik 21:00etara koko-dantzak erdialdeko kalietan (Zuloagarren, Toribio Etxebarria, Untzaga eta Calbeton) erakutsiko dittue, Mautxita txarangak lagunduta. San Andres elizaran atarixan amaittuko da koko-marruen kalejira.



Eguen Zuri datorren astian

Datorren astekua Eguen Zurixa izango da gurian, Aratostietako egunik haundiña herriko umiendako. Izan be, urteroko moduan 15:30xak aldera hasiko dittue ikastetxietako kalejirak, batzuk herriko erdialdian eta beste batzuk eskola inguruan (beti be, eguraldixaren menpe). Horrekin batera, 17:00etan Jainaga eta Narbaizarekin kalejira hasiko da, Urkizutik Untzagaraiño. Ordu berian hasiko da Lisker taldiak girotutako dantzaldixa Untzagan (karpan) eta 19:00ak arte Astixaren eskutik hainbat taillar egongo dira martxan (ipuiñetako personajien karetak, makillajea, osagarrixak...).

Taberna dotoriena aukeratzeko lehiaketia

Aratostietan dotorien apaintzen daben tabernia aukeratzeko lehiaketia deittu dau udalak. Jaixetarako lokala apaintzen daben edozein tabernak dauka parte hartzeko aukeria, otsaillaren 4rako (14:30xak baiño lehen) Pegoran edo 010 telefonuan izena emonda. Izena emotiarekin batera, tabernarako aukeratu daben dekoraziõgaixa zein dan azaldu biharko dabe. Epaimahaikidiak otsaillaren 5ian, Barixaku Erregularrian ibilliko dira tabernarik taberna, 18:00etatik aurrera, zelan apaindu dittuen ikusi eta baloratzeko. Jakiña, ordirako dana prest euki biharko dabe lehiakidiak. Irabazlia zein dan barixakuan bertan esango dabe, asteburuan taberna irabazlia ikusi nahi dabeneri horretarako aukeria emoteko eta sarixa Eibarko udalaren garaikurra izango da.

MAIALEN LOPEZ IGLESIAS

6. URTEURRENA (2010-I-30)

"Sei urte badira ere gure aldetik joan zinela, zure maitasunak eta irribarreak gure bidea argitzen jarraitzen du. Asko maite zaitugu"

ETXEKOEK



Osasun gida

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales **UniverSalud**

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ginekologoak

M^a Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ONA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologí Klinika

• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746


PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia



AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

PSIKOTERAPIA ZENTRUA


HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



100 urte eskopetak artelan bihurtzen

Agurtu barri dogun urtian, 2015ian bete zittuan 100 urtiak Aguirre y Aranzabal-AYA eskopeta taillarrak eta, urtiari agur esan baiño lehen, mendeurrena ospatzeko bazkarixa egin eben bihargiñak, jubilauta duguaz bihargiñetako batzuk eta enpresako bazkidiak. Miguel Aguirre eta Nicolás Aranzabal armagin eibartarren eskutik sortu zen AYA 1915. urtian eta orduz geroztik taillarraren sortzaillieri izena zor detsan markarekin eskopetak saltzen segidu dabe. Gaur egun Otaola Hiribidian dago taillarra eta, mendeurrenaren atxakixarekin, bisitan egon giñan oin dala egun batzuk eta, gure herrixari eta foball taldixari laguntzen detsen "armagin" berbiaren osasuna oindiok be sendua dala ikusitta, taillarretik pozik urten giñan.

Oin dala 30 bat urte Eibarren oindiok be armak egitten zittuen 40 bat taillar eguazen, gaur egunian dozena erdi baiño ez dira geratzen: Garbi, Grulla, Zubillaga, El Reno, Arrieta eta Kemen El-goibarren...

Izan be, gure herrixan ondo baiño hobeto dakigun moduan, 60. eta 70. hamarkadetik aurrera sektoriak atzera be gainbeheria ezagutu eban: sasoi batian 500 bihargin zittuan AYA-k, baiña merkatuaren eskaerik etenbarik behera egitten ebala ikusitta, 80ko hamarkadan armagintzan ziharduen 20 enpresarekin bat egittera bultzatu eben eta, eskopetagille danak alkartuta, Itziarren, Diarm izenarekin pare bat urtian biharrari eustia lortu eben. Baiña armagiñak salbatzeko ahalegin horrek be kale egin ebanian, 1988xan lehengo AYA-ko 14 bihargiñen artian jatorrizko izenari heldu eta enpresia atzera be martxan ipintzia erabagi eben. Hori bai, lehelengo egunetik oso argi euki eben nundik nora jo: lehen baiño eskopeta gitxiago egingo zittuen, baiña kalidadia hobetuta. Ideia horri segiduta, kantidadia jaitsi zan kalidadiaren mesedetan.

Harrezkero eta gaur arte taillarrak aurre egittia lortu dabe. Aurrera eraikiñian zabaldu eben lantegixa, baiña aurrera egittiaz ez eze, lantegixa hazten juan zan eta oingo tokixan, sasoi batian Lauronak bete eban eraikiñian taillar haundixagua ipiñi eben martxan. Gaur egunian eskopeta bat egitteko prozesua ixa-ixa osorik (pabonua salbu) eu-



Gaur egun 22 bihargin dakaz AYAk eta, sosiguz bada be, badoiaz gaztiak biharrin sartzen. **Silbia Hernandez**

ren esku dake, lantegixan bertan. Horretan bakarrak dira eta, gaiñera, euren eskopetendako bihar dittuen materixal eta piezak lantziatz gain, Eibarko beste taillarrak bihar dittuenak be eurak egitten dittue, holan herriko beste armagiñendako hornitzaillie bihurtuta. Burdiñak forjatik jaso eta kañioi bihurtu arte, barrenatzia, erreixatzia, limatzia... dana eurak egitten dabe, mekanizaziñua, kulatak, eskopetia montau, grabaeuakin apaindu...

Oin momentuan 22 bihargin dagoz, "baiña 25 be izan gara". Euretako bat da **Javier Salegi** kaxagiña. Berak egurra-ekin egitten dau biharra, eskopetaren kaxak egitten. Zelako egurra era-biltzen dittuen galdetxian "onak" erantzun biribilla bota zeskun. Berak hasierako AYA eta atzetik taillarrak izandako gorabehera guztiak ezagutu dittu, baiña etorkizunari positibuan begiratzen detsa: "Aguantatzeko moduan egongo garala pentsatzen dot".

Eskopetak bezeruaren gustora egitten

dittuela kontau desku: "Klientiak eskopetia goittik behera zelan nahi daben esaten desku eta guk holan egitten detsagu. Argazkixak bialdu eta halako egurra nahi dabela, edo zelako dibujuarekin apaintzia nahi daben... Gastatzia nahi daben diruarer arabera nahi beste gauza eskatzen juaten dira".

Holan, norberaren kapritxuari moldatuta egitten dan eskopetia zenbat kostau leikian galdetuta, bakarrik gitxieneko prezia zein dan zihetzera aillegau gara: "Gitxienez 6.000 euro pagauko dittue eta hortik gora, bezeruak eskatzen dabenaren arabera nahi beste igotzen juaten da".

Salagiren aldamenian kaxagin biharrin urtebete daroian **Mikel Zabala** gaztia topau dogu. Sektore kasualidadez aillegau da: "Ebanista modulo bat ikasitta nekan eta etxian, biharren bat topatu nahixan neguala, halako batian hamen galdetzia bururatu jatan. Pen-



tsau eta egin, neretako biharrik eguan galdetu eta hamen nago, urtebete honetan biharrian". Esaten dabenez, "biharra politta da, eskua hartu bittartian lanbidia egunero ikasten juaten zara, baiña oso gustora nabil. Aurretik beste bihar batzuetan jardundakua naiz eta honek ez daka zerikusirik beste taillarretan egitten danarekin. Hamen ez dago beste toki batzuetan makiñak etaratzten daben zaratarik edo zikinkerixarik, biharra egitteko beste modu bat da".

Jon Leon mutrikuarra taillarreko batzbesteko edadia bajatzen lagundu daben gazietaiko bat da. Berak zertan diharduan ikustera gerturatu eta "espulsorak, tirua bota eta gero kañoiari kartutxua etaratzten detsan piezia" lantzen dabela kontau desku. Bera be pozik dago egitten daben biharrekin: "Parian dakaten piezak montatzen juaten naiz, puzzle bat osatziaren parekua dala esan geinke".

Taillarrian "aprendiz"

Eskopetak grabau be taillarrian egitten dabe, bestiengandik kristalak bereiztuta daguan gelatxo batian. Hiru grabadore dagoz, andra bi eta gizon bat. Azken honek hasierako AYA ezagutu ebala kontau desku: "Taillarra itxi eta hurrengo urtietan beste gauza batzuetan jardun neban biharrian, baiña biharrerako grabadoriak topau ezinda eguazen eta barriro grabatzen hasi nintzan, gaur arte".

Errelebo faltia da, hain zuzen be, armagintzaren sektoriak urtietan dakan kejarik haundiña: "Bihargiñak jubilatzen juan ahala, errelebua hartuko daben gazterik ez dago, oso gatxa da honetan jarduteko gaztiak topatzia eta, gaiñera, ofiziuia ikasteko tokirik ez dago". Edozelan be, lantzian behin bakarraren bat animatzen da. Udaz geroztik grabatoria izateko preparatzen dabillen Jorge Leon gazte eibartarra da hórretako bat: "Beste lagun batek hamen grabadore pre-



lazko urtia amaittu baiño egun batzuk lehenago bazkarixa euki eben Azittainen.



Dindiok be biharra egitterakuan betiko erremintta eta teknikak erabiltzen ditue.

miñia eguala esan zestan eta, dibujorako eskua eta zaletasuna betidanik dakatenez, etortzera animau nintzan eta hamen nabil eskua hartzen. Ondo nabillela diñue. Horregaittik laster biharrian hasteko moduan egongo naizela pentsatzen dot".



AYA Laurona eraikiñian.

ñi detsagun helburua urtian 600 eskopeta etaratzera aillegatzia da".

Abellanek esan deskunez "merkatuari begiratzian oin dala gitxira arte ez eguan mundu maillako ikusmirarik. Guk hori aldatzia nahi dogu, mundua bere osotasunian merkatu modura hartu bihar dala pentsatzen dogu. Oin arteko merkatuak sendotziarekin batera, merkatu barrixak zabalteko asmua dakagu eta horretan gabiltza, geure eskopetak Errusia, Pakistan, Europako Ekialdian, Mexikon, Herbeheretan, Hego Afrikan... saldu ahal izateko bidiak zabalteko ahalegiñetan".

Horrekin batera, lanbidian formaziño egokixa emongo daben tokiren bat zabaltearen premiña haundixa daguala ikusitta, etorkizunian be armagintzak aurrera egin-go dabela ziurtatziarren lanbidia gaztieri erakusteko moduren bat topatzeko biharrian hasitta dagoz: "Beste herrialde guztietan horretarako eskolak dagoz, baiña Espaiña osuan, armagintzan diharduen enpresa asko egon arren, ez da sekula holarik egon eta hori aldatzeko sasoi dala uste dogu. Eskintza hori hamen inguruan izaten ahaleginduko gara, holan beste guztientako erreferentia izateko".



Eskopetia goittik behera taillarrian egitten dabe, klientiaren gustora.

Mundura zabaldu nahixan

Gaur egunian urtian 350 eskopeta inguru urtetzen dira Otaola Hiribideko taillarretatik, baiña **Bela Abellan** zuzendarik azaldu deskunez, "aurrera begira dakagun asmua gehixago fabrikatzia da, geure buruari ipi-

Iraider Garcia eta Alaitz Andonegi, Gaztelekuko hezitzaileak

«Nerabeekin lan egiteak bere xarma dauka»

Indianokua Gaztelekua Udaleko Gazteria saileko egitasmo eta ekipamendua da. Eibarko Muzategi kalean dago eta zerbitzu publikoa eta doakoa da. 12-18 urte bitarteko gazteentzako gunea da, eta aisialdi hezitzailea euskaraz garatzea da egitasmo honen helburu nagusia. Lokalak 400 m² ditu eta lau gunetan banatuta dago: harrera gela (ping-pong, diana, futbolina, paletak, Nintendo Wii-a, Play-estation-ak); goiko txokoa (lasai-lasai lagunak elkarrekin egoteko txokoa); barruko gela (sukaldea, tailerrak egiteko, ordenagailuak, mahai-jolasak, elkartzeko txokoa) eta ikasteko gela.



- Noiztik zaudete Gaztelekuan eta zein da zuen zeregina? Nola-ko gauzak antolatzen dituzue gazteentzat?

Indianokua zabaldu zenetik (apirilean 5 urte beteko ditu) gaude hemen, baina lehen zegoen Errota Gaztelekuko hezitzaileak izandakoa gara. Euren proposamenak jasotzen ditugu eta horiekin osatzen dugu programa. Hala ere, hilabetero ekintza batzuei eusten diegu: sukaldaritza, filme-emanaldia, eskulanak, disparteak, Play-wii... beti ere euren iritzia kontuan hartuta. Zerbitzuaren eskaintza gazteen premietan eta eskaeretan oinarritzen da.

- Ze adineko gazteak joaten dira Gaztelekura eta nolako gauzak egitea gustatzen zaie?

Berez 12-18 urte bitartekoei zuzenduta dago, baina gehienbat DBH-1eko ikasleak datoz. Azkenaldian Karaokeak eta JustDance bideo-jolasek arrakasta handia dute.

- Zein da zuen lanak daukan alderik onena eta txarrena?

Nerabeekin harremantzeak eta euren heldutasunerako bidean parte hartzeak bere xarma dauka; aberasgarria da eta gai ezberdinen inguruan "eguneratuta" egotea eskatzen du. Onena harremanak egitea eta euren adinari lotutako gorabeherak ikustea eta bizitzea da. Txarrena, asteburu askotan, asistentzia-maila oso altua izaten dugula eta lan hezitzailea egin beharrean "polizia" papera hartu behar izaten dugula.

- Zer esango zeniekete Gaztelekua ezagutzen ez duten gazteei?

Gerturatzeko, eurentzat pentsatutako zerbitzu bat dela eta lagunekin egon, lagun berriak egin eta norberaren zaletasunak aurrera eraman ahal izateko lekuri aproposena izateaz gain, gure laguntza izango dutela uneoro. Astelehene-tan izan ezik, egunero dago zabalik. Ordutegia ikusteko: <https://eibarkogaztelekua.wordpress.com/>

MAITANECASTILLOOTAOLA

IX. urteurrena

*Urteak pasatzen diren arren,
gure bihotzetan eta bizitzetan
JARRAITZEN DUZU.*

ZURE KOADRILA



Ikasapresa Azokak 166 enpresa bilduko ditu

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Sailak, Tknika (Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako berrikuntza zentroak) eta udalak antolatuta, V. Ikasapresa Azoka egingo da gurean datorren astean, martitzenean, 10:30etik 13:30era Untzagan.

Lanbide Heziketako ikasleek Ikasapresa programaren barruan sortu dituzten 166 enpresa hartuko ditu azokak eta Untzaga-ko plaza biak beteko ditu. Eibarren hiru ikastetxeak, Armeria Eskolak, Uni Eibar-Er-

muak eta Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketa zentruak hartzen dute parte programan eta horiek ere azokan egongo dira. Ekitaldia eguaztenean aurkeztu zuten Pili Diez, Tnikaren Ikasapresa programaren dinamizatzaileak, Alberto Albistegi, Enplegu, Garapen Ekonomikoa eta Berrikuntza Saileko zinegotziak eta Iñaki Mujika, Tknika-ko zuzendariak. Arduradunen berbetan, "Ikasapresa Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako proiektua da. Programaren bitartez ikasle-

ek enpresa berria sortzeko esperientzia zuzenean bizitzeko aukera daukate eta, horrekin batera, ikasleek ekintzailetasunerako gaitasunak gartzten dituzte".

Ikasturte honetan Euskadi osoko 53 Lanbide Heziketa ikastetxetako 3.000 ikasle baina gehiagok dihardute parte hartzen eta 418 enpresa sortu dira. Ho-



Pili Diez, Alberto Albistegi eta Iñaki Mujika, aurkezpen egunean. **Silbia**

rietako asko datorren asteko Azokan parte hartzen izango dira, "euren enpresak eza-gutzera ematen eta eurek egindako produktuak saltzen".



Iazko edizioan baino enpresa gehiagok hartuko dute parte oraingoan. **Silbia Hernandez**



ROBOTIKA LH-ko ikasleentzat

Aste honetan aurkeztu dituzte "Ibilbide Teknologikoa 2016" programaren barruan antolatu dituzten tailerrak. Otsaila eta martxoan tailer bi emango dituzte eta biak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat apropos antolatu dira. "Lego Education WED" delakoa robotikaren inguruko tailerra da, hasiera mailakoa. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat eta haien gurasoentzat antolatu dute eta euskeraz emango dute, Juan San Martin Liburutegian, otsailaren 13an eta 20an eta martxoaren 5ean, 16:00etatik 18:00etara. Ikastaroaren prezioa 36 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat eta 61 eurokoa, berriz, Eibartik kanpokoentzat. Eta "Lego Mindstorms education" tailerra, berriz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei eskainiko zaie, hau ere euskeraz eta egun eta toki berean izango dira klaseak, baina 18:00etatik 20:00etara. Prezioa 24 eurokoa da Eibarren erroldatuta dauden haurrentzat eta 40 eurokoa kanpokoentzat. Izena emateko epea astelehenean zabal-

du eta otsailaren 9an itxiko dute. Informazio gehiagorako www.eibar.eus helbidera jo daiteke eta matrikula egiteko, berriz, Pegorara joan behar da.

Bestalde, txanda honetan eskaintzen dituzten toki guztiak betez gero, lasai egon, martxoan (29an, 30ean eta 31n) eta apirilean (9an, 16an eta 23an) biak errepikatuko dituzte eta.

Robotika maila aurreratua eta Arduino

Bestalde, Alberto Albistegi, Enplegu, Garapen Ekonomikoa eta Berrikuntza Saileko zinegotziak eta Alberto Asin, tailerrak emango dituen Doplay robotika enpresako fundatzaileak aurkezpen ekitaldian aurreratu zuten, udan eta neguan apur bat nagusiagoak diren ikasleentzat (16 urtera artekoentzat eta hortik gorakoentzat) beste bi tailer eskaintzeko asmoa daukate: robotika maila aurreratuaren ingurukoa ("Lego Mindstorms EV3", DBH-ko ikasleentzat, 16 urtera arte) eta Arduino-aren ingurukoa (16 urtetik gorakoentzat).

Orain dela egun batzuk, urtarrilaren 11n, jarri da martxan Jazinto Olabeiko ludoteka. Bertan, 5 eta 12 urte bitarteko Eibarko haurrek ondo pasatzeko eta jolasten ikasteko aukera paregabea daukate. Egunero dago zabalik, astelehenetik ostiralera, eta adinaren arabera bi ordutegi daude.

Ludoteka, klasetik kanpo umeei jolastu eta ondo pasatzeko lekua

5, 6 eta 7 urteko haurrak 16:30etik 18:00etara joan daitezke "parke gorri"ko ludotekara, eta **8-12 urte bitartekoak**, berriz, 18:00etatik 19:30era. Eibarren ez da inoiz horrelakorik egon eta adin horretako haurren aisialdirako aukera ezinhobea da. Era askotako gauzak egiten dituzte: mahai-jokoak, eskulanak, margo-lanak, antzerkia, sukaldaritza-txokoa, bolatokia, eraikuntzak, txotxongiloak... Lokala bi espazio deberdinetan banatuta dago, eta haurrak alde batetik bestera dabilta, batzutan sukaldetxoan jolasten, beste batzutan margotzen edo partxisean, euren artean hitz egiten... Aratosteak ate joka ditugunez, paretak umeei margotutako marrazki erraldoiekin apaintzen dihardute egunotan.

Mikel Zararraua eta **Enaitz Alberdi** gazteak dira ludotekan umeei lan egiten duten profesionalak, eta **Ane Eguren** eurenkin praktiketan dago. Umeen heziketan eta aisialdi-taldeen esperientzia handia dute eta begibistakoa da umeei eurenkin daukaten konplizitate. Begiraleen usteetan, garrantzitsuena ondo pasatzea eta gustora sentitzea da: "Ondo pasatzen badute eta ludoteka euren dela sentitzen badute, ondoren edukiak eta helburuak betetzen joango dira."

Matrikulazioa oraindik zabalik dago. Urtean 50 euro ordaindu behar dute 5-7 urte bitartekoek, eta 75 euro 8-12 urte bitartekoek. Txikien taldean (5-7 urte) haurkopuru polita dago. Ludotekaren kudeaketaz arduratzen den Astixako **Asun Gandiagak** adierazi digunez, "batzuk lehen Afariketaren egondakoak dira, eta, hemengo dinamika desberdina denez, egun hauetan euren egoerara berrira ohitzen ari dira. Na-

gusien taldera (8-12 urte) haur gehiago erakarri nahi ditugu, eta horretarako euren lagunak ludotekara gonbidatu eta jarduera berezi batzuk egingo ditugu: txokolatada, jokoak...". Arduradunek ludoteka ezagutzera eman nahi dute, eta horregatik egun hauetan eta hurrengo asteetan ateak zabalik egongo dira ludoteka zer den eta bertan nolako gauzak egiten diren ezagutu nahi duten haur guztientzat.

Asunen esanetan, "helburua aisialdi osasuntsua eskaintzea da. Haurren parte-hartzea sustatu nahi dugu: euren proposatutako eta pentsatutako gauzak aurrera eraman nahi ditugu, talde-lana sustatuz eta euren nahiak kanporatzen erakutsiz. Zeharka badaude beste helburu batzuk ere: euskeraren erabilera sustatzea; arazoak dituzten umeen integrazioa; bizikidetzeta, errespetua eta elkartzuna bezalako balioak bultzatu...". Haurren parte-hartzea ez ezik gurasoena ere landu nahi dute: "izan daiteke ipuin bat kontatzea, hitzaldi bat ematea, esperientzia bat kontatzera..."

Begiraleek kutxa bat jarri dute haurren iradokizunak jasotzeko: "oraingoz txotxongiloen antzerkia egin nahi dute, eta eskulanean jogurt-poteekin marakak egin nahi dituzte. Beraz, Aratosteekin amaitzean gauza horiekin hasiko gara. Txotxongiloekin gai asko ikutzen dira: gidoia prestatu, panpinak, antzezte-lana, lotsa kendu..."

Ludotekaren proiektua EH Bilduk 2015eko udal aurrekontuetan aurkeztutako emendakinen fruitua da. Azkenik, proiektua onartu egin zen eta, 2016ko aurrekontuetan onartzen baldin bada, ikasturtea amaitzean (ekainean) lokala hobetzeko obrak egingo dira. **Igone Lamarain** EH Bilduko zinegotziak adierazi digunez, "lokalak baditu gazbezia batzuk eta ikasturtea amaitzean espazioa hobetzeko lanak egitea espero dugu. Umeek jolasten ikasteko lekua izateaz gain, gurasoendako formaziorako eta esperientziak konpartitzeko lekua izatea nahi dugu. Jazinto Olabeiko ludotela herriko bakarra ez izatea espero dugu, Eibarren ludoteka-sare bat sortzea beharrezkoa ikusten baitugu".





Kanpoko
hotzaren
aurrean...

...ETXEAN
BERO-BERO

2016ko
urtarrila

fonta.amana@gmail.com



AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Faxa. 943 254 929

Jardines Iturgintza

Jardiñeta, 11 B info@fontaneriajardines.net



ELEKTIBAR, S.L.U.
ELEKTRIZITATEA
PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK

- * Denetariko **ERREFORMAK**
- * **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- * **ATE AUTOMATIKOAK**
- * **BERO URDINA**

JOSU BENGOA

Indalezio Ojanguren 2, behea EIBAR
☎ 943 70 05 42 Faxa: 943 53 02 31 electibar@gmail.com
Aurrekontuak konpromezurik gabe

Gas-galdaren mantenimendua

Derrigorrezkoa da gas galdararen egoera urtero daztertzea eta behar diren ziurtagiriak edukitzea. Erabiltzaileari dagokio zerbitzu hau kontratatu eta ordaintzea. Zenbait gas enpresek urtero ikuskatzeko zerbitzua eskaintzen dute. Baina komeni da jakitea galdara jarri duen enpresa eta azterketa egiten dutenak ez dutela zertan berdinak izan, beti ere, horretarako baimena baldin badu.

Segurtasun neurriak

- Gelak nahikoa **aireztapen** eduki behar du. Kanpora ematen duen saretan edo rejillaren bidez izan daiteke, bat lurzorutik hurbil eta berea sabaitik hurbil. Beti garbi mantentzea komeni da, hautsik gabe eta zabalik.
- Berogailuek eta galdarak **kea ateratzeko irteera ona** eduki behar dute. Irteerako hodiak nahiko haizebide izatea ezinbestekoa da.
- Gas-bonbonara doazen **tutuak zaindu** egin behar dira, eta iraungitze-epeari arretaz begiratu behar zaio.
- **Sugarraren koloreari** erreparatzea garrantzitsua da. Urdina eta zuzena izan behar du. Horixka eta asko mugitzen den sugarra seinale txarra da.
- **Giltzak konprobatu** behar dira, hau da, erabili behar ez direnean, pasoko giltzak itxita dauden.
- **Ke-kanpaia** eta **berogailuaren galdara, biak aldi berean ez erabili**. Galdara sukaldean badago, ke-kanpaiarekin galdararen keak gelditu daitezke, kanpora atera beharrean.
- Gas **usaina somatuz gero**, ez piztu argiak eta ez jo tinbrerik. Leihoak zabaldu eta gela aireztatu. Usaina ongi itxita ez dagoen aparatu batetik ote dagoen konprobatu eta arazoa hor ez badago, **teknikari bati deitu**, instalazioa lehenbailehen ikuska dezan.

Nola garbitzen dira tximiniak?



Zenbatean behin garbitu behar da tximinia?

Asko erabiliz gero, urtean behin gutxienez; bestela, hiru urtetik behin.

Nola egiten dute garbiketa-lan hori profesionalak?

Lehenbizi, etxean bertan sartzan dira, eta tximiniako hodia ixten dute; baita, edukiz gero, atetxo ere. Teilatura igo, eta makila berezi batekin zikinkeria guztia kentzen dute, kedarra. Makilak hagaxka modu batzuk ditu, eta triku baten antza duen eskuila bat. Gero, behera jaitsi, eta egurra jartzen den lekuan pilatzen den kedarra xurgagailuarekin kentzen da. Horrela, zikinkeria ez da etxean pilatzen.

Garbitu ezean, zein arrisku dago?

Nagusia suteak izateko arriskua da. Bestalde, etxean kea pilatzeko arriskua ere handiagoa da. Gainera, garbitu ezean, tximiniak gutxiago berotzen du. Garbitzean jendeak alde handia nabaritzen du.

Ba al da trikimailurik tximinia horrenbeste ez zikintzeko?

Egurra bakarrik erabiltzea. Izan ere, jende askok, erraustegi bat balitz bezala, erre daitekeen edozer gauza botatzen du. Askok, egunkari eta aldizkari zaharrak botatzen dituzte, eta hori ez da batere aproposa. Duten tintarekin kedara asko sortzen dute, eta hori pilatuta geratzen da. Bestalde, oso garrantzitsua da erabiltzen den egurra erabat lehorra egotea; bestela, ore moduko bat sortzen da erretzen denean, eta zailagoa da garbitzen.



Lagunak

erreformak

zure erosotasuna eta lanen kalitatea, gure izatea

- ▼ Erreformak
- ▼ Errehabilitazioa
- ▼ Iturgintza
- ▼ Gasa eta kalefakzioa
- ▼ Gremioen koordinazioa

943 70 26 12 - 625 185 122
Txaltxa Zelai, 1-2 behea
lerreformak@gmail.com

SARGORI

BEROKUNTZAK S.L.

GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA

San Agustin, 2-4 - J lokala
Tel. 943 53 02 01 Faxe. 943 53 15 03



Azpiri

EIBAR • AMOREBIETA • DONOSTIA

Calbeton, 23
943 12 07 91
Matxaria, 2
943 20 35 12



IZARRAITZ LEIHOAK-ERREFORMAK

Leihoak - Pertsianak - Bainuak
Toldoak - Manparak - Ateak
Parketa - Era guztiko erreformak
Fatxaden eta peoren konponketa...

Bidebarrieta, 48
Tel. 943 25 60 26

EIBAR (SONIA)
ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com

Energia aurrezteko aholkuak

Adituek diotenez, etxeetan kontsumitzen den energiaren erdia aurrezteko modua dago. Etxean energia aurrezteko zenbait aholku erraz irakurriko dituzu jarraian.

BEROKUNTZA

- Etxe barnean **20 graduko temperatura** izatea nahikoa da eroso egoteko. Logeletako tenperatura 3-5 gradu txikiagoa izan daiteke.
- Gauerako, **berogailua itzali**, eta, goizean, ez piztu berriz etxea ongi aireztatu eta leihoak itxi arte.
- Berogailuetako **balbula termostatikoek** eta **termostato-programatzaileek** energia aurrezten laguntzen dute.
- Etxean egon behar ez baduzu, utzi termostatoa **15 gradutan**.
- Berogailu barneko aireak ez du uzten beroa behar bezala hedatzen. Hori saihesteko, berogailuak urtean behin **purgatu** behar dira.
- **Ez estali** berogailuak ezerekin.
- Logela bateko airea berrizatzeko nahikoa da **leioa hamar minutuz irekita** izatea.
- Gaeuz, **jaitsi pertsianak** eta **itxi errezelak**, beroa kanpora joan ez dadin.
- **Bi kristalezko leihoak** edo bi leiho instalatu.

UR BEROA

- Bizarra egiterakoan, hortzak garbitzerakoan edo dutxa hartzerakoan, **txorrota itxi**, ura erabiltzen ari ez zarenean.



- Dutxa hartzerakoan erabiltzen dugun ura eta energia halako lau erabiltzen dugu bainua hartzen dugunean. Kontuan hartu.
- Tantak **isurtzen** zaizkion txorrota berehala konpondu.
- **Ur gutxiago kontsumitzeko** gailua instalatu dutxa buruan.
- Nahikoa da **ur beroa 30 eta 35 gradu artean izatea**, eroso dutzatzeko.
- Ur berorako eta ur hotzerako txorrota bana izan ordez, **hobe da txorrota bakarra izatea bietarako**, eta ur beroa eta hotza nahasgailu batekin nahastea.



IG A

KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-
Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95
Faxa. 943 70 24 95 Mugikorra. 670 21 46 25

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:
Birjiñape, 1 behea Tfnoa. 943 20 20 40
cristaleriaiga@gmail.com

TAILERRA:
Errekatxu, 3


CLIMALITekin **isolatzaile onena lortuko duzu**
akristalamendu bikoitzaz

ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA: eta faxa: 943 20 39 03
Arikixaneko Zubian info@cristaleriaacha.com

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.



Bidebarrieta, 28 - behea
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, atek, barandak, makinendako babesak, tximiniak, nabarrak, etb.



Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67
Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26

Tfnoak: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net



Arrateko prospekzio lanek ez zuten emaitzik eman

Urtarrilaren 8an prospekzio bat egin zen Arrateko basoetan, Meabe batalloiko bi gudariren gorpuak bilatzeko helburuarekin. Prospekzio lanak Aranzadi Elkarteko teknikariek egin zituzten, Intxorta 1937 Kultur Elkartearen laguntzarekin. Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibilean desagertutako pertsonen gorpuak dauden hobiak ikertzeko eta aurkitzeko 2015-2020ko Plana landu du, eta plan horren baitan kokatutako lanak izan dira, hain zuzen ere. Plan horretan adierazita dagoenez, hobiak dauden 80 kokaleku daude dokumentatuta.

Plana Monika Hernando Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak eta Paco Etxebarria Aranzadi Elkarteko lehendakariak aurkeztu zuten, Bilbon, 2015eko abenduaren 30ean. Azken hori da hobiak ikertzeko eta haietatik gorpuak ateratzeko lanen arduraduna.

1936ko irailaren 28an Diez Riveraren tropek Kalamua mendia eta Arrate okupatzea lortu zuten, eta biharamunean errepublikanoek eraso gaizatu zuten. Arrate eta Kalamua artean lerro bat osatu zen, etengabeko erasoak jaso zituena urriaren 2tik 8ra bitarte. Besteak beste, Meabe batalloiko gudariak aritu ziren erasoan. Eta urriaren 8an, Meabeko 1. eta 2. batalloiak,



Intxorta 1937 taldeko Jon Etxezarragak jarraitu zituen prospekzio lanak. Berak dioenez, "jakitun gara urteak aurrera doazela eta, honezkero, hirugarren belaunaldikoen iturriekin dihardugula lanean".

Largo Caballero eta Stalin izenekoak, Usartza inguruan zeuden.

Prospekzio lanetan ez zen emaitzarik lortu. Bi gorpuak Arrateko Santutegiaren azpian dagoen pinudi batean lurperatuta daudela uste da eta, inguruko baserritar batek adierazitako lekuan 6 metro zabaleko eta 25 metro luzeko zanga egin zen

arren, ez zen ezer aurkitu; ez gorpurik, ez gertakariaren erlazioatutako material belikorik. Prospekzioa Barakaldoko Manuel Laorden Meabe 1 batalloiko familiak eskatuta egin zen santutegitik behera, San Pedrorra begira dagoen maldan. Asmoa dago hor inguruan beste ahalegin bat egiteko, beste iturri batzuei jarraituta.

Garridori ez zioten laga Palestinan sartzen

100 kilo erropa eta 30 kilo eskola-material jaso eta gero, Pablo Garrido elgoibartarrari ez zioten laga Palestinan sartzen, bildutako erropa gero hara bidaltzea lortu bazuen ere. CAPP Palestinako herriaren aldeko fundazioaren babesarekin joan zen gabonetako oporrak aprobetxatuta, Jordaniatik oinez sartzeko asmoarekin. Baina mugan, Israelgo polizia eta soldaduek geldituta, aparteko leku batean "sei orduko galdeketa mespretxugarria"

egin zioten. Horrez gain, "muga zeharkatuz gero bere bizitza arriskuan jarriko zuela" ohartarazi zioten eta, hori mehatxutzat hartuta, Garridok atzera egin behar izan zuen. Itzultzailearen jarrera jo du okerrenentzat Pablok, "galderetan bere kabuz gehiago sakontzen zuelako, oztopoak gehitzeko". Hori bai, ez zuten katxeatu: "Arraroa egin zitzaidan".

Mugan egon zen bitartean beste palestinar batzuk zelan tratatzen zituzten ikus-

teko aukera izan zuen eta "egunero hortik pasatzea jasanezinezkoa" dela deritzo. "Musulmanak eta txinatarrak zituzten batez ere han mugan. Eta garbiketak egiten, jakina, etiopiarrek zebiltzan, azal ilunekoak... funtzionario guztiak zuriak ziren bitartean", dio kooperanteak. Pasaportean Israeleko sarrera-zigilua dauka, bi marrekin tatxatua eta "sarrera ukatua" dioten beste bi zigilu ditu gainean. Martitzenean gurrera etorri zenean beste moja bati ere Palestinan sartzea debekatu ziotela-eta, zaila ikusten du hurrengo batean bertara joatea: "Asmoa dut Tel Aviv-era joateko hurrengo gabonetan, turista gisa. Oraingoan, baina, bertakoei laguntzeko dirua batuko dut aurretik. Eta bandera bat ahaleginduko naiz sartzen" dio, gaeuz Palestinako argiak ikusteaz konformatu behar izan zuen herri palestinarren aldeko kooperanteak.

Hamabost egunak Jordania pasa zituena Pablo Garridok, galdeketa ondoan autobus batean sartu eta hara bidalita. Amman-en hotela hartu eta, hizkuntz arazoei aurre egiteko, "han izena zuen gizon baten lagun egin nintzen, CAPP fundazioarekin harremanetan jartzeaz gain". Azken horiek eraman dituzte erropak Palestinara.



Jordaniako errefuxiatu kanpamendu batean ateratako argazkia, gure astekariaren logoarekin.



Bilbon ere, **ZALETUAK** eredugarri

Zoriondu eta dena egin zien Bilboko Udalak aurreko domekan Bizkaiko hiriburuko kaleetan izandako jarrerarengatik. Tren bi eta 11

autobus joan ziren domeka goizean eta guztiak batu ziren Moyua Plazan, handik San Mameseraino elkarrekin joateko kalejiran. Guztia ere giro bikai-

naz lagunduta eta, partidua galduta ere, Eibarko zaletuek jarrera eredugarria erakutsi zuten egun osoan. Bilboko Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sai-

lak guzti hori eskertu zuen kaleratutako komunikatuan. Aipatutako mezu horri erantzun zion Eibarko Udalak ere hitz horiek eskertuz.



Arruabarrena Huescara

Eibarren jokatzeko zituen aukera urriak ikusita, Eibarko aurrelariak 2. A mailako Huescaren deia onartzea erabaki du eta, horrela, han jokatu du denboraldiaren amaierara arte. Hala ere, Eibarrek mailari eusten badio, Arruabarrenak bere kontratua berrituko luke automatikoki talde armaginarekin. Azken urteotan taldeko aurrelari onena izandakoak oso minutu gutxi jokatu ditu Mendilibarren aginduetara.

Eibarrek Malaga hartuko du bihar Ipuruan, 18:15ean

Bigarren itzuliko hirugarren jardunaldiko partiduan, Mendilibarren taldeak Albentosas gaur egun jokatzeko duen taldea izango du bisitari. Denboraldi-hasiera kaskarra izan bazuen ere, talde andaluziarrrak gora egin du eta sailkapeneko erdialdean dugu egun. Neurketa arratsaldeko 18:15ean hasiko da.

Bestalde, **Sergi Enrich aurrelariak (argazkian)** kontratua luzatu du beste denboraldi baterako eta urtarirlean etorritako Jota Peleteiok Bilbao debutatu zuen aurreko domekan. Klubak salgai jarri ditu Ipuruan jokatu diren hurrengo hiru partiduetako sarrerak (Malaga, Levante



eta Las Palmasen kontra arituko dira Mendilibarren mutiak, sailkapenerako garrantzi handiko partiduetan) eta Premier Bidaiek-ek, bestalde, otsailaren 6an jokatu den Madrilgo Atletico eta Eibarren arteko partidurako desplazamendu aukera bi eskaintzen ditu.



Urbat hirugarrena waterpoloko Euskal Herriko Kopako final four-ean

Navarrarekin finalerdian 14-7 galdu eta gero, Urbat waterpolo taldeak hirugarren postuan amaitu zuen Euskal Herriko Kopa txapelketa. Ondo aprobeixatu zuten aukera lehen taldearekin debutatu zuten hiru gaztek (Mikel Albizuri, Oier Lete eta Izei Sologaistua). Behin Koparen ametsa amaituta, Euskal Herriko 1. mailan jarraitzeko ordua heldu zaio taldeari.

Jubenilen taldeak, bestalde, 11-

14 galdu zuen Orbean Waterpolo Donostiren aurka, oso fisikoa izan zen partiduan; eta alebiren taldeak ondo irabazi zion Easori. Jone Gomez, Irati Martin eta Elene Molina Euskal Herriko selekzioaren deialdian izan ziren hurrengo Espainiako txapelketa prestatzen. Eta, azkenik, Urbat-en ibilitako jokalariek berriz uretan ikusteko aukera izan zen Orbean jokaturako Master txapelketan: Askartzako bizkaitarrak izan ziren garaile hor.

Triatloiairen Gala egingo da etzi Irunen



Irungo Atalaia Hotelean domeka eguerdian egingo den Triatloiairen Galak 2015eko txapelkunak sarituko ditu eta hor izango dira Delteco Eibar Triatloi Taldeko hainbat ordezkari. Horrela, Euskal Herriko duatloi zirkuitoan, Roberto Gartzia beteteranoen 1. mailan, Julen Terran kadeteetan eta Delteco taldekoan azpitxapelkun geratu dira, bakoitza bere mailan, eta Juanjo Romero hirugarren sailkatu da beteteranoen 2. mailan. Azken hori postu berean, hau da, hirugarrenean, sailkatu da triatloi zirkuitoan ere.



Triatloi zuria Pello Osororentzat

Ansoko Espainiako txapelketako neguko triatloia bereganatu zuen Delteco Eibar Triatloi taldeko Pello Osoro eibartarrak. Eta bere anaia Txomin ere urtez urte aurreko postuetara hurbiltzen doa: oraingoan 10.a izan da eta 23 urtetik azpiko bere mailako onena.

Avia Rugby Taldeak proposamena egin dio Eibarko Residentziari

Herriko errugbi taldeak, Hezkuntza Esparrutik abiatutako bizi-ohitura osasuntsuaren aldeko jardunarekin bat eginez, "EVITI-rekin modu aktiboa parte hartzea" proposatu du, "bereziki Eibarko Residentziarekin".

Proiektu eta proposamen hori unibertsitatearen behar eta ordutegietara moldatuko litzateke, "Unibertsitateko Errugbi Tag Taldea osatzeko asmoz". Astean behin entrenatzeko aukera eskaintzen diete, orain hasi eta ikasturtea amaitu arte iraungo lukeena. Ekintza hori unibertsitateko ikasle guztiei zuzendu zaie, aukera eskainiz zentroan bertan izena emateko eta baita entrenamenduak egiteko ere. Astelehenean hasiko dira lan horretan eta, ondoren, residentziako instalazioetan astero errugbi tag saioa egitea proposatzen dute; talde mistoa osatzea dute azken helburutzat.



FELISA ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

-Ramon Agirregomezkortaren alarguna- (2012-I-29)



4. urteurren MEZA:
urtarrilaren 30ean (domeka),
19.00etan, San Andres parrokiari





Somos Eibar Eskubaloia ezustetik gertu Zarautzekin (27-28)

Eskubaloiko herriko lehen taldea gero eta indartsuago agertzen zaigu eta, Euskadiko Koparen finalerdian, maila bat gorago jokatzen duen Amenabar Zarautz gainditzekotan egon zen herenegun Ipuruan jokatutako partiduan, azkenean gol batengatik galtzeko. Ligan, bestalde, Ereintzarekin berdindu zuen azken jardunaldian Erreterian jokatutako neurketan eta orain bigarrenarengandik puntu bira dago sailkapenean. Asteburu emankorra izan zen Eibar Eskubaloiko harrobiko talde guztientzat ere, garai le izan zirelako jokatutako partiduetan.

Aitor Hernandez kexati munduko txapelketatik kanpo laga dutelako

Ermuko txirrindulariaren ibilbidean lagun duen *Aitor Hernandez Team*-ek bidalitako komunikatuan, domekan Belgikako Zolder-en jokatuko den Munduko Txapelketan parte hartzeko deialditik kanpo laga dutela eta euren ezustea azaltzen dute eta baita hartutako erabakia kritikatu ere. Javier Ruiz de Larrinaga aurtengo Espainiako txapeladuna eta Ismael Esteban izango dira etziko txapelketan Espainiako selekzioa ordezkatzeko. Komunikatuan agertzen dutenez, *“Ruiz de Larrinagak denboraldi honetan beste lau lasterketa irabazi ditu txapelketatik aparte, Ismael Estebanek bat bera ez eta ermuarrak, bestalde, hamalau, Espainiako Kopa ere bereganatuz”*. Aitorren profesionaltasuna nabarmentzen dute eta bere babesleei egindako kaltea salatu. Hala ere, onena opa diete beste biei etzirako.



Gimnasiako eskola eta amateur mailetako denboraldi hasiera

Bihar arratsaldean eta etzi goizez jokatuko da amateur eta eskola mailetako txapelketaren lehen fasea eta hor ipuruak hiru talderekin lehiatuko du, banaka eta taldeka jardungo duten 17 gimnastekin guztira: seniorretan, Ane San Martin, Irati Yarza eta Nahia Bilbao; jubenetan, Lorea Armendariz, Arrate Baroja eta Nerea Deza; kadeteetan, Paula Laskurain, Eider Ojanguren, June Martinez, Nerea Etxebarria, Ane Davila eta June Arguello; eta infantiletan, Nahia Gonzalez, Nahia Zenarruzabeitia, Sara Etxaburu, Ana Portu eta Maria Cruz. Hiru taldeek azken denboraldian egindako bidetik jotzeko asmoa dute: infantil mailakoak Gipuzkoako azpitxapeladunak izan ziren eta Euskadiko joko eskoletako txapeladunak, jubenilak Gipuzkoako eta Euskadiko azpitxapeladunak, eta kadeteak Euskadiko azpitxapeladunak. Guztira Tania Nagornaia, Miriam Merino eta Natalia Urmakaeva prestatzaileek osatzen duten hirukoteak 80 gimnastekin dihardu lanean.



MARIA MANTEROLA EIZMENDI (2016-I-23)



“Gure Bihotzeko Ama maitea, maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako. Agurrik ez, gero arte baizik. Lagundu eiguzu, beti bezela. Dana maitasuna zara”

ZURE SENIDEAK



Euskeraz Primeran! kanpainako datu-bilketa martxan

Urte berriarekin batera berritasunez berrituta dator Berbetan mintzapraktika-egitasmoa, eta "2016an euskera helburu" goiburua hartuta ekin dio urte berriari. Beste jardueren artean, Euskeraz Primeran! kanpainarekin bat egin duten establezimenduei iaz hartutako konpromisoa berresteko aukera emango zaie, eta establezimendu berriak ere bisitatuko dira.

Astelehenean hasi eta datozen sei bat asteotan, ...eta kitto! Euskara Elkarteko bi dinamizatzailek jardungo dute Euskeraz Primeran! kanpainarekin bat egin duten establezimenduetan datu-bilketa egiten. Galdegegi horien bitartez euskeraren inguruan establezimendu horien egoera zein den azter-

tuko du ...eta kitto!-k, konpromiso ezberdinek hartzeko aukera emango zaie, eta euskerarekiko dituzten premia edo nahiak ere adierazi ahal izango dituzte. Horrez gainera, Euskeraz Primeran!-en orain arteko balorazioa ere eskatuko zaie. Behin datu guztiak bildu eta aztertu ondoren, "behar horiei erantzuna ematen saiatuko gara", diote Euskara Elkartetik. Galdetegiarekin batera Euskeraz Primeran! pegatina berria ere emango zaie, lehen berba euskeraz egiteko konpromisoa berretsi edota lehenengoz hartzen dutenei, eta Eibarren euskeraren inguruan dauden zerbitzuen berri ematen duen katalogoa ere jasoko dute.

2015. urte amaieran, 204 denda eta 77



taberna zeuden kanpainan sartuta; datozen asteotan establezimendu berriak bisitatuko direnez, kopuru horrek gora egingo du ziurrenik. Berbetan mintzapraktika-egitasmoan edo Euskeraz Primeran! kanpainan urte osoan eman daiteke izena, www.etakitto.eus webgunean edo 943200918 telefonora deituta.



Primerako San Blas opilen tailerra

...eta kitto! Euskara Elkartek, Berbetan programaren barruan, antolatutako San Blas opilen tailerlean talde polita elkartu zen. Isabel Arregiren gidaritzapean opil ezberdinak egiten ikasi zuten: esnegainarekin eta gabe, gluten barikoak, estaltzeko zuria egiteko modu ezberdinak, txokolatea sartzeko aukera... Pozarren bueltatu ziren etxera, opil bana eskuetan.



II. GILDA-LEHIAKETA 2016

NOIZ: 2016ko martxoaren 3 eta 4an.

NORENTZAT: **Euskeraz Primeran!** kanpainan sartuta dauden tabernentzat.

LEHIAKETA-OINARRIAK:

- 1.- Taberna bakoitzak **gilda bakarra** aurkeztu ahal izango du lehiaketara. Nahi dituen osagaiak erabiliko ditu, baina **GILDA** izan beharko da.
- 2.- Lehiaketara aurkeztuko den **gilda**, ...eta kitto!-k emandako txartelaren bidez identifikatuko da.
- 3.- Lehiaketara aurkeztuko den **gilda** asko jota **euro baten salduko da**.
- 4.- Izen-emateko epea: **Otsailaren 10era arte**.
- 5.- Lehiaketan parte hartuko duten taberneak aurkeztuko duten **gildaren argazkia** ...eta kitto!-ra bidali beharko dute **otsailaren 17**rako, katalogoa egin ahal izateko, **whatsapp** bidez (688 85 95 59) edo **emailez** (komunikabideak@etakitto.eus).

- 6.- ...eta kitto!-k eramango ditu tabernetara bozketarako kutxak eta orriak, eta martxoaren 5ean jasoko ditu.

SARIAK:

- 1) Epaimahaiaren saria: **150€**
- 2) Herritarren saria: **150€**

EPAIA: Martxoaren 9an jakinaraziko da.

Harremanetarako deitu **943200918** telefonora.



Laguntzaileak



ELENA MARTIN Eibarko Musika Eskolako irakasleak zuzenduko du gaur, 20:30etik aurrera, Coliseoan eskainiko den Gospel Bilbaoren kontzertua. Berak eta Alain Gallego pianistak gidatuko dute 28 abeslariz eta sei musikariz osatutako taldearen emankizuna. Aipatutako taldearekin izango da Eibarko Koro Gaztea ere, telonero lanetan. Bilbaoko abesbatzak generoaren klasikoak eskainiko ditu eta, horiez gain, Michael Jackson-en "Man in the mirror" edo U2-ko "Pride" gospelizatuko dituzte, beste batzuen artean. Hiru urte dira kontzertuak eskaintzen hasi zirela, eta gaurkoan 10 euro ordainduz gospelarekin gozatzeko aukera ezinhobea izango dugu, "jendeak txalo egiteko eta aleluia deihadar egiteko" paradarekin batera.



elena martin GOSPEL BILBAOKO ZUZENDARIA

"Gospelarekin gozatzeko eta dantzatzeko aukera izango da gaurko kontzertuan"

– Zelan eta zergatik heldu diozu horrelako proiektu bati?

Proiektua 2012an sortu zen Bilbon; orduan ezin izan nuen hartu, eta orain hamabostean behin Bilbora joateko baldintza bakarrarekin heldu diot. Bestalde, gospela oso gustokoa izan dut betidanik eta oso ilusio-natuta gaude lanarekin.

– Zertan aberastu zaitu proiektuak?

Prestaketa-lan potoloa egin dugu Alain Gallego zuzendari-ordeak eta biok; bera gabe ezinezkoa izango zen. Entseguak bi ordukoak izaten ziren, 20:00etatik 22:00etara, eta hor bestelako esperientzia batekin aurkitu gara. Genero berria izanik, teknikoki eta musikalki ahalegin berezia egin behar izan dugu eta asko ikasi dut ahots mistoen abesbatza zuzentzerako orduan. Espiritualki ere bete nauela esango nuke, musika afroamerikar horrek arimaren kontuak ukitzen dituelako. Txikitatik gus-tatu izan zait musika beltz estilo hori eta koru gazteekin jardundakoan ere beti sartu izan dugu gospel tema bat edo beste.

– Zeintzuk izan dira lan-prozesuko zailtasun edo erronka nagusienak?

Nire barnean horrelako ezinegon moduko bat izaten dut lan honekin; nire sentsazioa da emaitza ez dudala hain kontrolatua, nire eskuetatik kanpago dagoela. Egia esan, ez naiz perfektionista eta, alde horretatik, ondo dago beti zeozer berria sortzea. Horrelakoetan, dena dela, ni-



re helburua izaten da ahots batetikan onena ateratzea beti. Gustutako litzaidake AEB-tara joatea urtebeterako eta han klaseak jasotzea, esaterako. Burua zabalik izan behar duzu beti, ikasteko prest.

– Zerekin egingo du topo gaur Coliseora doanak? Izango du ezustekorik?

Euskaldunek egindako gospela izango dute aurrean eta dantzatzeko eta gozatzeko aukera paregabea. Gure kontzertuetan feed-back-a bilatzen dugu, horrek bihurtzen du-eta arrakastatsu funtzioa. Eta, Missisippi-tik ez bagatoz ere, pasio guztiak abesten dugu eta hori jendeak igarriko du. Gospela ezagutzen dutenek gozatu egingo dute; eta ezagutzen ez dutenek zeozer berria deskubrituko.

– Lanbidez irakaslea izanda, zelako egoera bizi du gure herriak arlo horretan? Badu hutsunerik edo zer hobetzerik?

Bi gai ematen ditut: Hizkuntza Musikala, 7 urtetik aurrerakoentzat; eta Koroa. Azken horretan bi abesbatza zuzentzen ditut: JB Gisasola Abesbatza, 9 urtetik 14 urtera arteko neska-mutulekin; eta Koro Gaztea, hor 29 urteko azken fitxaketarekin. Bandaren eta beste taldeen harrobia ere zaindu beharko genituzke; aldi berean, haize- eta perkusio- instrumentuak behar dira... Bestelako ideiak ere izan daitezke, akaso matrikulazio-estrategia alda daiteke, baina aztertu beharreko kontua da.

– Tradizioz musikari lotutako herria izan da Eibar. Gazteek heltzen diote tradizio horri? Eta gizonak, zergatik falta dira euren ahotsak ia talde guztietan?

Tradizioari heltzen diogula esango neuke, ahal den neurrian behintzat. Egun gutxi barru Santa Agedako kalejira izango dugu, oso bizi dago egun hori. Proiektu asko badaude ere, errealitate bihurtu behar ditugu. Gazteen kasuan, sasoiak aldatu dira eta musika komertziala da nagusi egun. Hala ere, nire irakasle lanean ahalegintzen naiz tradiziozko musikari eusten. Eta gizonen kontu horri buruz, kultura kontua ere badela uste dut. Europa iparraldeko herrialdeetan eta Alemanian arte arloan gizonen protagonista diren moduan, gurean ez dago halakorik. Baina piskanaka bideratzen jakingo dugulakoan nago.



XOSE LOIS CARREIRA
(artista)

- Zer aurki dezake publikoak erakusketan?

Artearen hainbat diziplina batzen dituen lan konpartitua; Iñaki Aranzabalekin batera egindako proiektua, hain zuzen. Artea eta literatura batzen ditu. Niri dagokidan alderdian, margolanak dira ehuneko handiena baina badaude egurrez edo granitoz egindako eskulturak ere. Bestalde, Aranzabalen 12 altxor literario daude, filosofia eta zibilizazioen historiari erreferentzia eginez, 12 momentu historiko gogoratzen dituztenak. Erakusketarekin transmititu nahi dugun mezua, nolabait, gure memoriaren ahultasunaz jabetzea da. Etengabe akats berberak egitera behatzen gaituen kondena hori islatu nahi dugu.

"Garrantzitsua da publikoak obrekin interaktuatzea"

Xose Lois Carreira eibartarrak umetatik izan zuen artearekiko zaletasuna. Hala ere, Arte Ederrak ikasteko erabakia udal pintura eskolan bere irakaslea izan zen Marina Barrenari esker hartu zuen. Urte askoan Galizian bizi den arren, Eibarrera bueltatu da "Gurutzatzen Diren Bizitzak" proiektua aurkeztera. Otsailaren 7ra arte Portalean egongo den erakusketa honek helburu solidarioa du, irabaziak Espainiako Mugarik Gabeko Medikuar Erakundera bideratuko baitira.

Modu batean edo bestean, egunero eraikitzen dugu memoria eta eraikuntza hori galtzen bada, historian egin diren akatsak errepikatuko dira. Beraz, ezin dugu gizartean aurrerakadarik egin. Memoriaren eraikuntza beharrezkoa da gizarte duinago baterantz abiatzeko, berdintasuna bermatzeko, ... Gaur egun arlo askotan ikus dezakegu, ez dugula ezer ikasi garai batean aurreko generazioek egin zituzten akatsetatik. Horren adibide dira, korrupzioa edo egoera ekonomikoaren larritasuna esaterako.

- Anbulatorioko parkean ikusgai dagoen eskultura ere proiektu honen parte da?

Bai, proiektua aurkezten duen lana da. Hala ere, leku hori behin-behinekoa

da, erakusketaren amu bezala jarritakoa. Ondoren, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Amaiñan inauguratuko den Berdintasunaren Pasealekuan finkatuko da, proiektuak egiten duen aurrerapausoaren eta berdintasunaren aldeko deia eta pasealekua kontzeptua bateratuz.

- Zer deritzozu lanak leku publikoetan kokatzeari?

Garrantzitsua da publikoak lanekin inter-aktuatzea eta museo batean egon daitezkeen arauak edo beldurrak ezabatzea. Gustuko dut hurrek edo gazteek eskulturekin jolastea, materialak ukitzea, eta etorkizuneko belaunaldiak benetan artearen inguruan hazten ikustea.


Musika Bandaren kontzertua

Cielito Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu domekan. Musika Bandaren urteko lehen kontzertua izango dena 12:30ean hasiko da, Coliseoan. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, emanaldian egitarau honi jarraituko diote: "La Gracia de Dios" (pasadoblea, R. Roig), "Star Trek Generations" (G. Rodenderry), "Katuska" (bigarren fantasia, P. Sorozabal), "Rapsodia Vasca" (V. Beobide) eta "Concerto d'Amore" (J. de Haan). Emanaldiaren aurretik, 11:00etan, Coliseotik abiatuta kalejira egingo dute.



Andres Egiguren Orkestra Madrilen

Pedro Palacine zuzentzen duen Andres Egiguren Orkestrak asteburuan kontzertu bi emango ditu Madrilén, iazko irailaz geroztik Cibeles kultur zentroan ikusgai egon den "Zuloaga-Falla, historia de una amistad" erakusketa agurtzeko egitarauaren barruan. Zapatuan eta domekan emanaldi bana eskainiko dute eta "El retablo de Maese Pedro", Zuloaga eta Fallaren elkarlanetik sortutako lanik garrantzitsuena interpretatuko dute musikoek, Ainhoa Franco, Carlos Silva eta Fabio Barrutia abeslariak lagunduta, Fallaren "El amor brujo" lanarekin batera. Aste honetan Donostian beste kontzertu bat eman dute.





"Bizi baratzea" J. Errekondorekin

Hainbat hedabidetan landare, lore, zuhaitz eta antzeko gaien inguruan berba egiteagatik ezaguna den Jakoba Errekondo usurbildarra ...eta kitto!-n egongo da otsailaren 9an, 19:30etik aurrera. "Bizi baratzea, garaian garaikoa eta garaiz" bere liburuak sekulako arrakasta izan du: 37 barazkiri buruz jakin beharreko guztia erakusten du bertan. Hitzaldian Jakobak bere-berea duen estiloaz gozatuko dugu: ulergarri azalduko ditu landareen munduaren oinarriak, zehatz eta mehatz emango ditu baratzea egiteko pausoak eta datuak, tarteka gehituko ditu bere bizipenak eta ondorioak, eta gozo gozo harilkatuko dizkigu baratzeari lotutako beste ha- maika gai: poesia, giarreen entrenamendua, formula kimikoak, astronomia egutegiak, gertakizun historikoak, animalien bizimoduak...



Euskararen Txantxangorria

Hizkuntza Politikaren sailburuordetzak abiatu duen "Euskararen Txantxangorria" kanpainarekin bat egin du Udalak. Txantxangorriaren irudiarrekin euskararen erabilera sustatu nahi dute eta, diotenez, "txantxangorriaren irudiak euskaraz egiteko gonbidapen atsegina, hurbila eta erakar-garria izan nahi du". Orain herritarrak udaletxean euskara erabiltzera animatu nahi ditu udalak eta, horretarako, Txantxangorria ipini dute sarrere-tan zein jendeari harrera egiteko tokietan.



Danborradaren emanaldi biribila

Domeka eguerdian Coliseora joandakoek ederto pasatu zuten, urte-ro bezala Usartza txistulari taldekoek, Eibarko Danborradako ordezkariekin eta "Molto Vivace" metal boskotearekin batera eskainitako danborradaren kontzertuan.



Cobraren disko berria

"Riffyard", Cobra taldearen disko berriak otsailaren 29an ikusiko du argia. Bien bitartean disko berrirako aurre-eskaera epea atzo bertan zabaldu zuten, lan berriko lehen abestia estreinatzearekin batera. Diskoa lehenbailehen esku artean izateko interesa duenak taldearen bandcamp orriaren bitartez, <https://cobarocks.bandcamp.com/album/riffyard> helbidean eska dezake.



Zapatuko ipuina

Bihar 18:00etatik aurrera "Aurorita beti polita" ipuin kontakizuna hartuko du umeen liburutegiak, Lur Kortaren eskutik. Zapatuko Ipuina programaren harira egingo den saioa lau urtetik gorako umeentzat egokia da eta, betiko moduan, sarrera doan izango da.

Abiatu da Ipurterre lehiaketa

XXII. Ipurterre ipuin eta gutunen lehiaketan parte hartzeko epea zabaldu dute. LH eta DBHko ikasleek har dezakete parte, euskeraz idatzitako ipuin edota gutunekin. Lanak martxoaren 7ra arte jasoko dituzte eta antolatzailerek diotenez "aurtengo sariak bereziak izango dira".



Trio Medianoche, Ipur sagardotegian

Gaur 21:30etik aurrera Trio Medianoche taldeak musikarekin girotutako afaria egingo du Ipur sagardotegian. Erretserba egiteko 943700119 telefono zenbakira deitu daiteke.




LETICIA MTNEZ-ALCOGER

Emakumeok jokoz kanpo?

Orain dela bi asteko ...eta kitto!-n Eibarko Kirol Sarien gaineko argazkiak plazaratu ziren. Ikusi zenituzten? Eta ez zitzaizuen ezer deigarri gertatu? Niri bai: irudietan gehienak gizonetzako dira; emakumeak, banakako nahiz taldeko kiroletan, gutxi dira. Zer dela eta desberdintasun hori? Emakumeon parte-hartze urria kirolean, gizonetzakoenaren aldean, pertsonak generoaren arabera sailkatzen dituen sistemaren ondorioa dugu. Banaketa horren defentsan genero bakoitzak bereizgarri aldaezinak dituela argudiatzen da. Eta andrazkook pasiboak, ahulak eta mendetasunaren lagunak omen garenez, XX. mendera arte, kirolaren munduan jokoz kanpo egon gara. Zorionez, azken belaunaldietan andreak kirolean jarduteko eskubidea irabazi dugu. Dena dela, oraindik ere diskriminazioa jasaten dugu: zenbait diziplina gizonenak ei dira; diru-sariak askoz baxuagoak dira emakumeontzat; kirol-instalazioek gizonetzako lehenesten dituzte; komunikabideetan gizonen lorpenak islatzen dira batik bat; esparruko ikerlan zientifikoek bakarrik gizonak hartzen dituzte kontuan; eta abar. Halere, badaukagu nori jarraitu kirolean, emakumeok nahi eta merezi dugun autonomia zein jabekuntza erdiesteko: Eibarren bertan, orain dela ehun urte, raketistek moldeak apurtu eta andrazkoentzako abagune berriak sortu zituzten, esaterako. Dударik gabe, etorkizunean oraindano zapaldu ez ditugun zelaia zeharkatuko ditugu.

Euskerazko piropo onenaren bila

Udal Euskaltegiak eta AEK-k, udalarekin elkarlanean, euskarazko piroporik onena aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Parte-hartzaile bakoitzak berak jasoa edo bota nahiko lukeen piropoa aurkeztu beharko du (ez da piropo irainga-



rri, xenofobo, homofobo edota sexistarik onartuko), otsailaren 21erako. Lehiaketarako lanak euskaltegi bietan eta udal liburutegian jasoko dituzte eta, bestela, posta elektronikoz bidaltzeko aukera ere badago (euskarazko@eibar.eus / eibar@aek.eus). Lehiaketara aurkezten direnen saria jasotzeko bi aukeratu dira: bata epaimahaiak hautatuko du, originaltasuna baloratuta, eta bestea www.eibarko-euskara.com webgunean jendearen boto gehien jasotzen dituen izango da (botoa emateko epea martxoaren 6an itxiko da).



Eguen Zuri argazki-lehiaketa

Aratosteak gainean ditugula eta, Arrate Kultur Elkarteak XIX. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa abiarazi du. Zaletu guztientzat zabalik egingo den lehiaketarako gaia Aratosteak da (ez da beharrezkoa argazkiak Eibarren egindakoak edo Eguen Zuri egunekoak izatea). Parte-hartzaile bakoitzak gehienez lau argazki aurkez ditzake, koloretan nahiz zuri-bel-tzean (40x50 zentimetroko euskarri edo passpartout-a izan beharko dute nahitaez). Lanak Arrate Kultur Elkartearen bulegoan zein tabernan jasoko dituzte, martxoaren 9ra arte.

Kultur bonuen %30 saldu dira

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez abiatutako Kultur Bonuen salmentak aurrera darrai. Abantaila ugariarekin kulturaz gozatzeko aukera ematen duten bonuen salmenta hasi zenetik, salgai ipini zituzten 1.000 bonuetatik 312 (%30) saldu dira. Salmentaren martxa ona dela eman dute aditzera, baina hala ere herritarrei gogorazi nahi diete bonuak erosteko aukera badagoela oraindik, apirilera arte salmentarekin jarraituko dute eta. Bonuari esker 25 euro ordainduta, sarreretan 40 euro gastatzeko aukera dago. Apirilera bitartean 30 antzerki- eta musika-ikuskitzunik gora daude programatuta (39. Antzerki Jardunaldietakoak barne). Bonua Coliseo antzokian eros daiteke, zuzeneko ikuskizunak hasi baino ordubete lehenago edota aurre-salmentarako ordutegiaren barruan (astelehenetan 19:00etatik 20:00etara eta barixakuetan 21:00etatik 22:00etara).



eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea



Herrixa Dantzan Elgetan

Domekan, 19:00etatik 20:30era Herrixa Dantzan dantzaldi irekia hartuko du Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak. Musika eta dantza tradizional ludikoekin (sokan, bikoteka, soltean, korruan, taldeka...) osatuta dagoen gidatutako dantzaldia da Herrixa Dantzan, "animatzen diren herritarrek dantzan elkarrekin ondo pasatzeko" asmoarekin antolatutakoa. Sarrera doan da eta parte-hartzea libre. Domekako saioa Patxi Monterok gidatuko du.



Glu Glu-ren antzezkizuna Ermuan

Gaur 22:15ean "Caperucita feroz" antzezlana eskainiko du Glu Glu Produkzioak konpainiak Ermua Antzokian. Zuzendaria Galder Perez da eta parte hartzen duten antzezleak Mikel Losada, Ylenia Baglietto eibartarra, Lander Otaola, Leire Ucha, Mari Cruz Melgosa eta Diego Perez. Sarrerak 10 euro balio du.

"Ametsen liburuaren" aurkezpena Soraluzen

Otsailaren 4an, 19:00etan "Ametsen liburua" aurkeztuko dute Soraluzen, kiroldegiko erakusketa-aretoan. Jokin Urain mendarorak preso, exilioan edo deportatuta egon diren lauhun pertsona baino gehiagoren "ametsak" jaso eta liburua osatu du. Aurkezpen-egunean egileak berak emango ditu lan horren inguruko azalpenak.

hildakoak

- Maria Manterola Eizmendi. 96 urte. 2016-I-23.
- Alberto Sarasketa Urain. 90 urte. 2016-I-23.
- Chelo Gonzalez de Rozas. 65 urte. 2016-I-25.
- Diego Iñan Lapeña. 62 urte. 2016-I-27.

jaiotakoak

- Jannat Yahya. 2016-I-14.
- Kawthar Benslaiman Srassi. 2016-I-19.
- Julen Madarieta Carballo. 2016-I-19.

farmaziak

- Barixakua 29
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Zapatua 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 31
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 1
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 2
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 3
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 4
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 5
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

	2			6				
6				1	3	9		
	7				8		1	6
		9						5
5	6						8	2
4						7		
8	9		7				2	
		6	4	8				7
				3			6	

5	8	1	9	3	7	4	6	2
6	4	3	1	8	2	7	9	5
7	9	2	4	6	5	3	1	8
1	5	7	2	4	3	6	8	9
8	6	4	7	5	9	2	3	1
3	2	9	8	1	6	5	4	7
2	1	6	3	7	8	9	5	4
4	7	5	6	9	1	8	2	3
9	3	8	5	2	4	1	7	6

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 29

ENTSEGUA

18:30. Sare-ren santaeskerako. Legarreko frontoian.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren kalejira.

ZINE-FORUMA

19:00. "Alma Salvaje", Pagatxa/Defibel elkartearen eskutik. Portalean.

BILERA IREKIAK

19:30. CARE Eibarko Errefuxiatuen aldeko Kontseilua. Portalean.

KONTZERTUA

19:30. Ainara LeGardon. Biharran espazioan (Ubitxa 6-8).

KONTZERTUA

20:30. Gospel Bilbao, Eibarko Koru Gaztearen parte-hartzearekin. 10 euro. Coliseoan.

Zapatua 30

KOKO-DANTZAK

08:30. Koko-dantzak eta koko-eskea, Kezka dantza taldearen eskutik. Merkatu Plazatik abiatuta.
09:00-16:00. Arrate Balle eta Gorosta auzoetako baserrietan jardungo dute.
19:00-21:00. Koko-dantzak erdialdeko kaleetan, Mauxitxa txarangak lagunduta, anbulatorioko parketik abiatuta. San Andres elizaren atarian amaituko da koko-marruen kalejira.

SAN BLAS IKASTAROA

10:00. San Blas opilak egiten ikasteko. Arrate Kultur Elkartearen.

JARDUNALDIA

11:00. "Aldatze Denok Gara", ikastetxea ezagutzeko eta, nahi izanez gero, aurrematrikula bertan egiteko.
11:15. Bisita gidatua eta tailerrak.
12:15. Hamaiketakoa. Aldatze ikastetxean.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00-14:00 & 16:30-20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro. Astelena frontoian.

UMEENDAKO TAILERRA

12:00. "Little Chef" sukaldaritza-tailerra. El Corte Inglesean.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

LAGUN TALDEA

17:30. "Sálvese quien pueda" jaialdia. 2 euro. Hezkuntza Esparruan.

UMEENDAKO TAILERRA

18:00. Umeendako Aratoste tailerra. El Corte Inglesean.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Aurorita beti polita", Lur Kortaren eskutik. Portalean (liburutegian).

Domeka 31

KALEJIRA & KONTZERTUA

11:00. Cielito Musika Bandaren kalejira, Coliseotik abiatuta.
12:30. Kontzertua. Coliseoan.

MUS TXAPELKETA

16:00. VIII. Mus Txapelketako kanporaketa. Klub Deportiboan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 1

IKASTEN

10:00. "Telefono mugikorrek eta erabilpenaren hasiera" tekno-foruma. Untzagako jubilatuek etxean.

IKASTEN

16:00. Sendabelarren foroa. Gaia: Landare aperitiboak (asentsio-belarra, lupulua, milorria. Portalean.

Martitzena 2

IKASTEN

10:00. "Bidaiak: Butan" hitzaldia. Armeria Eskolan.

IKASNPRESA AZOKA

10:30-13:30. V. Ikas-enpresa Azoka. Untzagan (plaza bietan).

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

Eguaztena 3

SANBLAS BEDEINKATZEA

08:30. Karmelitetan.
10:30. San Agustinen.
11:00. San Andresen eta Azitaingo elizan.
12:00. San Jose Obreron (Urdin) eta El Salbadorren (Amañan).
19:00. Karmelitetan.

SAN BLAS LEHIAKETA

17:00-19:00. Etxean egindako opilak tarte horretan aurkeztu beharko dira. Erabakia 20:00etan emango dute ezagutzera. Arrate Kultur Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 4

EGUEN ZURI

15:30. Ikastetxeetako taldeen kalejirak.
17:00. Kalejira, Jainaga eta Narbaizarekin, Urkizutik Untzagaraino. Dantzaldia, Lisker taldearekin. Untzagan.
17:00-19:00. Tailerrak, Astixaren eskutik: ipuinetako pertsonaien kareta, makillajea eta osagarriak. Untzagan.

SANTA AGEDA

19:00. Santa Ageda Batzen kalejira, Sostoa abesbatzaren eta J.B. Gisasola Musika Eskolako trikitilarien eskutik. Egogainetik Urkizuraino.

BILERA IREKIA

19:00. Kaleratzeak Stop Debarrenarena. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

SANTA AGEDA

19:30. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren Santa Ageda kalejira.

erakusketak

Urtarrilaren 31ra arte

Joan Buxo-ren argazki-erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*

Almenarako argazki taldearen erakusketa. *Deportiboan.*

Iñaki Campos-en "Metronomos" argazki-erakusketa. *Portalea tabernan.*

Iñaki Campos-en rock-taldeen argazki-erakusketa. *Ez Dok tabernan.*

Otsailaren 7ra arte

"Gurutzatzen diren bizitzak" Xose Lois Carreira eta Iñaki Aranzabalen erakusketa. *Portalean.*

2016ko abendura arte

Jose Luis Apraizen arma-bilduma erakusketa. *Armagintzaren Museoa.*

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, XUHAR, martitzenian urtetxua beteko dozu-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Eukenen partez.



Zorionak, ALBA, bixar zazpi urte egingo dozuzelako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, UXUE, bixar gure printzesak urtia egingo dau-eta!!! Millioi bat muxu famelixaren eta, batez be, gurasuen partez.



Zorionak, ANDER, gaur zortzi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JUNE, atzo bost urte potolo egin zenduaz-eta. Patxo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, GAIZKA, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, JUNE, haraiñegun zazpi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat zure famelixaren partez.



Zorionak, JULEN, martitzenian bederatzirte urte beteko dozuz-eta. Segi holan gure bizitzak alaitzen! Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ARRATE, domekan bederatzirte urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat eta ondo pasau famelixa eta lagunekin.



Zorionak, KATRIN, astelehengan zazpi urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, OIHAN, hiltaren 20xan sei urte egin zenduaz-eta. Zein ondo ospatu genduan lagun eta famelixakuen artian!! Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ESTHER eta OLATZ, hiltaren 25ian eta gaur urtiak egin dozuzelako. Patxo haundi bana zuen famelixakuen partez.



Zorionak, PAULE (bost urte hiltaren 12xan) eta HAIZEA (sei 27xan) zuen urtebetetziengaittik. Aitxixa Eduardo, amama Itziar eta etxekuak.



Zorionak, XUHAR, hiltaren 26xan urtia egin zenduan-eta. Muxu bat, potxolino, aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, IZARO eta PERU, 11 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bana etxeko guztien partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
30ean: 19.45, 22.30
31n: 20.00
1ean: 20.30

"45 años"

Zuzendaria: Andrew Haigh



(2 ARETOAN)
30ean: 17.00, 19.45, 22.30
31n: 17.00, 20.00
1ean: 20.30

"La chica danesa"

Zuzendaria: Tom Hooper



(ANTZOKIAN)
30ean: 17.00, 19.45, 22.30
31n: 17.00 (1 aretoan), 20.00
1ean: 20.30

"La gran apuesta"

Zuzendaria: Adam McKay



(ANTZOKIAN)
30ean: 17.00
31n: 17.00

"Alvin y las ardillas"

Zuzendaria: Walt Becker



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Bi etxe salgai Uxanurin (Nafarroa). 160 m²koa sartzeko modukoa (65.000 euro). 120koa barruko distribuzioa egiteke (30.000 euro). Tel. 653-735733.

1.2. Errentan

– Pisu txikia (buhardila antzekoa) hartuko nuke alokairuan Errebal-Urkizu inguruan. Tel. 631-098995.
– Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-337083.
– Lagun batentzako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 617-171520.
– Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 637-363778.
– 3 logelako pisua alokagai Eibarren, Ipuru auzoan. Haurrak dituztenentzako aproposa. Tel. 636-221469.
– 3 logelako pisua alokagai Eibarren. Kalefazioarekin. Tel. 697-901000 eta 651-706981.
– Gela biko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-408528.
– Pisu alokagai Esteponan (Malaga) portua eta hondartzaren aurrean, igerileku komunitarioarekin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldia eta terraza (itsasoari begira). Hamabostaldietarako (otsailetik ekainera arte). Tel. 645-728317 eta 943-201294.
– Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 632-192408.
– Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 689-571882.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibarren. Oso merke. Tel. 651-706981.
– Garajea itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.

3.2. Errentan

– 33 m²ko lokala alokatzen dut, hainbat aktibitatearako aproposa (bulegoa, klase partikularak...). Tel. 674-277661. Cristina.
– Bi gela alokagai Arrasaten (bat jantzita), Estetika, masajeak, psikologoa, tatuatzailea... hainbat aukeritarako aproposak. Leku paregabearen. Prezio onean. Tel. 603-723219. Aitor.
– Garajea hartuko nuke alokairuan Errebal inguruan. Tel. 622-107353.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da arratsaldez hiru ordutan lan egiteko. Tel. 631-098995.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 652-683273.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako. Erreferentziak. Tel. 652-567969.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-709164.
– Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako. Erreferentziak. Tel. 652-587259.
– Pieza eta artikulu zaharrak konpontzen dira. Tel. 609-918803.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta taberna laguntzeko. Tel. 632-384325.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 602-051309.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Tel. 631-883878.
– Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile jardun, garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 628-738472.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-273486.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren edo inguruan. Tel. 639-020081.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin etabar. Erreferentziak. Tel. 616-328060.
– Ileapaintzailea eskaintzen da Eibarko ileapaindegi batean lan egiteko. 15 urteko esperientzia. Tel. 650-988799. Marian.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Orduka. Tel. 628-318570.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako. Tel. 631-918394.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Tel. 640-209948.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Orduka. Tel. 662-430951.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jardun eta garbiketarako. Tel. 636-882838.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu eta torno konbentzionalan lan egiteko. Tel. 633-892829.
– Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 679-801543.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 632-337083.
– Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile edo kamarero jardun eta nagusiak zaintzeko. Tel. 653-281376.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko. Erizaintza tituluekin. Tel. 666-380843.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osoz. Geriatria tituluekin. Tel. 658-458061.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-458271.
– Gizona eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin eta sukaldari moduan. Tel. 634-709827.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-417946.
– Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako, sukaldari-laguntzaile jardun eta nagusiak zaintzeko. Tel. 610-865694.
– Emakumea eskaintzen da tabernak, soziedadeak eta pegorak garbitzeko. Tel. 638-421827 eta 636-841158.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 636-623978.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 692-258870.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-506373.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, sukalde-laguntzaile jardun eta garbiketarako. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 638-338816.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak (baita gauzez ere) edo umeak zaindu eta garbiketarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 634-863034.

4.2. Langile bila

– Sukaldaria eta kamarera behar dira. Curriculum-a bidali: camareros12345@gmail.com
– Fresadora CNC-ko mekanizatzailea hartuko luke Elgoibarko enpresa batek. Orduetgia: 09:00-13:00. Tel. 943-744066.
– Sukaldaria edo sukalde-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Egun erdirako kontratua. Esperientziarekin. Tel. 943-206868.
– Kamarera/o behar da asteburuetan egun guztirako. Curriculum-ak: eibarkafe@gmail.com
– Esperientziadun zeramista behar da Eibarko hortz-klinika batean. Tel. 943-700082.
– Banatzailea behar da Txioakan. Gida-baimenarekin. Tel. 686-913746.
– Emakumea behar da interna lan egiteko. Egunero hiru ordu libre (17:00-20:00) eta asteazken eta ostegunetan sei (10:00-16:30). Tel. 617-652130. Diana edo Aitor.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Unibertsitateko neska eskaintzen da ulermen arazoak dituzten umei klaseak emateko. Maila guztiak, banaka etxetan eta merke. Esperientzia. Tel. 625-019711.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematika etabar ematen dit. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Neskaren jaunartze-soinekoa salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 653-010861.

6.2. Eman

– Lokal baterako altzari eta sofa batzuen bila gabilza. Soberan badituzue, deitu. Tel. 618-559191.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Bataurrekoak topatu nituen domekan Bilboko tren-geltokian partidurako bidaia-maieran. Metalezkoak, txikiak eta obalatuak. Tel. 656-736509.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu



CAMBRIDGE ENGLISH Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

APIRILEKO DEIALDIA
AZTERKETAK EIBARREN, DURANGON eta ARRASATEN

MATRIKULAK
Otsailaren 1etik 18ra

AZTERKETA DATA

FCE	<i>Papers 1, 2, 3, 4 (azterketa osoa)</i>	LARUNBATA Apirilak 9
FCE FS	<i>Papers 1, 2, 3, 4 (azterketa osoa)</i>	LARUNBATA Apirilak 16
CAE	<i>Papers 1, 2, 3, 4 (azterketa osoa)</i>	LARUNBATA Apirilak 16

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	943 19 25 00
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Anglo-American	943 20 01 08	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
	Link Idiomas	943 20 39 59	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
OÑATI:	Academia Sheila Fritz	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58
ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79			



La  **Salle**
Eibar

AURREMATRIKULA ZABALIK
2016-2017 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleeibar.com

Urtarrilaren 25etik otsailaren 5era
(biak barne)

HAUR HEZKUNTZA,
LEHEN HEZKUNTZA
eta **DERRIGORREZKO**
BIGARREN HEZKUNTZA

La Salle Isasi
eta Azitain
Ikastetxeetan



Aur re matrikulak

**Urtarrilaren 25etik
Otsailaren 5era**

**HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN**



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87

Online aurrematrikula:
www.hezkuntza.net

gozamena da elkarrekin Ikastea

**Aurrematrikula:
urtarrilaren 25etik
otsailaren 5era**

**Euskal Eskola
Publikoa**

PERTSONA HEBELBURU

ELUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

2016-2017 IKASTURTEA



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78